

2020KO URRIAREN 19AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- 2021EKO ORDENANTZA FISKALEN EZAUGARRI, TIPO, KUOTA ETA TARIFEN ONARPENA.
- 2.- 2020KO UDAL AURREKONTUAREN 3/2020 KREDITU ALDAKETA.
- 3.- ZEGAMAKO EGUNEKO ZENTROA HANDITZEKO ETA ERABERRITZEKO LANEN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA PLEGUA ETA PROIEKTUA ONARTZEA.
- 4.-ERAKUNDE EZ GUBERNAMENTALEN ARTEKO LANGUNTZAK BANATZEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 5.- HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA ETA NORMALIZAZIOAREN ARLOAN IVAP-EKIN HITZARMENA BERRITZEA.
- 6.- GOIERRIKO ESKOLA KIROL EGOKITUAREN PROIEKTUAREKIKO ATXIKIMENDUA.
- 7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 8.- GALDE-ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- 2021EKO ORDENANTZA FISKALEN EZAUGARRI, TIPO, KUOTA ETA TARIFEN ONARPENA.

Espedientea ikusirik.

Udalak ezartzen dituen zerga eta tasen Ordenantza Fiskalak ikusirik eta bertan jasotzen diren kuota eta tipoen zenbatekoak ikusirik, honako aldaketak bideratzea proposatzen du Alkateak, Ogasun Batzordean aztertu eta proposatutakoaren arabera:

- Orokorki zerga eta tasen tipo, kuota, tarifak eta ezarritako hobariak mantentzea proposatzen da.
- Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko Zergaren kontzeptuak egokitzea proposatzen da, honako atal hauek egokituz:

“ Landalurrean eraikin berriak egitea edo lehendik daudenak handitzea edo birgaitzea (eraikina eskatzailearen ohiko bizilekura zuzentzen demean).....0,5

Landalurrean eraikin berriak egitea edo lehendik daudenak handitzea edo birgaitzea, eraikinaren zatitzea egiten demean (eraikina eskatzailearen ohiko bizilekura zuzentzen ez demean).....4,5

- Hondakinak jasotzeagatiko tasetan, Sasieta Mankomunitateak ezarriko duen %8,9ko iguera onartzea proposatzen da, zenbatekoak portzentai horretan igoz.
- Gizarte zerbitzuen atala, Udaleko Gizarte Zerbitzuen arduradunak proposatutakoaren arabera egokitu dira.
- Udal igerilekueta tasen abonuan bi aldaketa proposatzen dira (“haurrik gabeko bikotea” eta “guraso bakarreko familia” atalak jasoz).

Proposamenak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Aipatutako proposamen horiek onartu, eta horien arabera, jarraian adierazten diren zerga eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskaletan zehazten diren kuota eta tipoen aldaketa behin-behingo onartzea, hauek 2021. urteko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direlarik:

1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA.

Portzentaia %

Ondasun Higiezin Hiritarren gaineko Zerga. 0,2614

Landa Ondasun Higiezin gaineko Zerga. 0,6670

HOBARIAK

- a) Kuota osoaren %50eko hobaria obra berriko ondasun higiezinetan edo harekin parekatzen diren eraberriketetan, beti ere interesatuek obrei ekin aurretik hala eskatzen badute. Ondasun higiezin horiek urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inbiliarriko enpresen jardueraren xede behar dute izan eta beren ibilgetuaren barruan ez egon.

Hobari hau aplikatzeko epea obrak hasi ondorengo zergalditik horiek amaitu ondorengo zergaldira bitartekoa izango da, eta betiere denbora horretan urbanizazio edo eraikuntza lanak benetan egiten badira. Epe horrek ezingo ditu inoiz hiru zergaldi gainditu.

b) Kuota osoaren %50rainoko hobaria, subjektu pasiboak familia ugarien titularrak direnean.

Hori emateko ezaugarriak eta ekarri beharreko agiriak:

a) Ohiko bizitokia: erroda agiria.

c) Ondasun Higiezin Zerga agiriaren kopia.

d) Foru Aldundiko Gizartekintzak emandako familia ugariaren titulua indarrean.

e) Beste Ondasun Higiezin jabe ez direla adierazteko Zinpeko adierazpena (garaje bat, trasteleku bat edo jarduera profesionalean ari tze ko lokala izan ezik).

Hereden tzi ako higiezinetan jabetza zati-banatuta egotea onartuko da, beste etxe bizi tza baten baliora iristen ez bada.

g) Eskaera epea: urtarrilaren 1etik 31ra. Eskaera ekitaldi bakoitzean egin beharko da.

Hobari hori bat etorriko da Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplika dakioken beste edozeinekin.

— Ezarritako hobari horiek, lor daitezkeen beste edozein hobari fiskalekin bateragarriak izango dira.

2. JARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGA

Portzentaia %

Impuesto sobre Actividades Económicas: 1,6779

3. TRAKZIODUN MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINKO ZERGA

Gutxienezko kuotak igotzen dira, zerga, hurrengo tarifa-taulen arabera ezarriko delarik:

Potentzia eta ibilgailu mota Kuota (€)

A) TURISMOAK

9 zaldi fiskaletik beherakoak	39,44
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak.....	79,77
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak.....	148,97
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak.....	168,02
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	236,89
20 zaldi fiskaletik gorakoak	261,40

B) AUTOBUSAK:

21 plaza baino gutxiagokoak	182,39
21etik 50 plaza bitartekoak	259,81
50 plaza baino gehiagokoak	325,58

C) KAMIOIAK

1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	92,50
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak.....	181,55
2.999 kg-tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak.....	259,81
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	325,58

D) TRAKTOREAK

16 Zaldi fiskal baino gutxiagokoak	38,62
--	-------

16tik 25 zaldi fiskal bitartekoek60,77
25 zaldi fiskal baino gehiagokoek 182,38

E) TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEK ARRASTATUTAKO ATOI ETA ATOI TXIKIAK.

1000 kg. baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko zama erabilgarridunek 38,62
1.000 kg.tik 2.999 kg zama erabilgarridunek 61,68
2.999 baino gehiagoko zama erabilgarridunek 182,38

F) GAINERAKO IBILGAILUAK

Ziklomotoreak 9,56
125 cc arteko motozikletak 9,56
125cc baino gehiago eta 250 cc arteko motozikletak16,49
250 cc baino gehiago eta 500cc arteko motozikletak..... 33,11
500 cc baino gehiagoko eta 1.000 cc arteko motozikletak... 66,30
1.000 cc baino gehiagoko motozikletak 132,64

Hobariak:

- %100eko hobaria ibilgailu historikoentzat eta, fabrikazioaren egunetik edo lehen matrikulaziotik kontatuta, gutxienez hogeita hamar urte dituztenentzat.
 - Turismo, autobus eta kamioi motako ibilgailuek hobaria izango dute zerga kuotan, kontsumitzen duten karburante motaren arabera, motorraren ezaugarrien arabera eta karburante horren errekuntzak ingurugiroan duen eraginaren arabera, beti ere ondoren zehazten diren baldintzak eta betebeharrak betetzen badira:
 - A) %40ko hobaria fabrikako homologazioaren arabera, ibilgailu hibridoak badira (elektriko-gasolina, elektriko-diesel edo elektrikogasa motorrak) eta isurpen kutsagarriak gutxitzeko, bere mota eta modeloerentzat egokiak diren tresna katalizatzaileez hornituak badaude.
 - B) %80ko hobaria isurpen gabeak edota, motor elektrikoa duten ibilgailuak badira.
- Aurreko A) eta B) ataletan aurreikusitako hobariak jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboek hobaria eskatzea, ibilgailu berriaren ezaugarrien fitxa teknikoa erantsiz.
- 100eko 50eko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori ugarizat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

Hobari hau urtero eskatu beharko da dokumentu hauek aurkeztuz:

- Foru Aldundiko Gizartekintzak emandako familia ugariaren titulua indarrean.

Eskaera epea: urtarrilaren 1etik 31ra.

3. ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA, KARGA MOTAK

Egokitzen da (proposatzen den testuaren arabera)

Portzentaia %

Etxebizitza berriak egitea, hobetzeak, handitzeak eta lanak lehendik dauden etxebizitzatan4,5

Egituran eraginik ez duten barne-lanak1,5

Etxebizitza berriak egitea ,eta hobetzeak, handitzeak eta lanak lehendik dauden etxebizitzatan horiek sute edo hondamen baten ondorioz eragindako kalteengatik egiten badira.....0,5

Landalurrean eraikin berriak egitea edo lehendik daudenak handitzea edo birgaitzea (eraikina eskatzailearen ohiko bizilekura zuzentzen demean)0,5

Landalurrean eraikin berriak egitea edo lehendik daudenak handitzea edo birgaitzea, eraikinaren zatitzea egiten demean (eraikina eskatzailearen ohiko bizilekura zuzentzen ez demean).....4,5

Berrikuntzak, hobekuntzak edo handitzeak merkataritza lokaletan 2

Industri eraikinak2

Aurreroko puntuetan sartzen ez diren gainontzeko eraikuntza, instalakuntza eta lanak 4,5

Hobariak

- Zirkunstatzia sozial, kultural edo historiko-artistiko edo enplegua sustatzeko baliogarriak izateagatik, interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzen diren eraikuntza, instalazio edo obrei, gehienez 3.000,00 euroko hobaria ezarri ahal izango zaie.

- 100eko 90eko hobaria ezarriko da, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasuna eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenenean.

4. HIRI IZAERAKO LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA.

Hiri izaerako lurren balio-gehiakuntzaren gaineko zergaren oinarri ezargarria finkatzeko erabiliko den urteko portzentaien taula:

Urte batetik 5 urtera bitartean	3,6
10 urtera bitartean	3,4
15 urtera bitartean	3,1
20 urtera bitartean	2,9

Zergapetze tipoa: % 5,44.

HERRI JABARIAREN ERABILPEN PRIBATUA EDO APARTEKO PROBETXAMENDUA EGITEAGATIKO TASAK:

1. UDAL JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK.

A) HESIAK, EDUKINONTZIAK,GRUAK ETA ALDAMIOAK:

Kontzeptua	Euro
1.- Hesiak, era guztietako lanetan: M2 edo zatiko egunean.....	0,83
2.- Obra ondarrak edo materialeak uzteko edukinontziak. Unitate; eguneko.....	3,08
3.- Gruak: Eraikuntzan erabilitako grua bakoitzeko, honen besoak bere ibilbidean bide publikoaren hegalkina hartzen duenean. Hilean edo zatiko	63,61

- 4.- Aldamio finkoetan jarritako defentsak, bide publikoan apoiatuak, horien azpitik libreki ibiltzea ezinezkoa bihurtzen duten euskarriekin:
M2 edo zatiko egunean 0,83
- 5.- Defentsa berberak, aldamiok bide publikoetan apoiaturik daudenean, iladan jarritako euskarriekin, fatxadako lerroarekiko paraleloan eta bertatik 1 1,2 metro distantzia gehiagora, langarik gabe, altueran 3 metro baino gutxiagokoak eta azpitik ibiltzea posible denean.
M2 edo zatiko egunean 0,30
- 6.- Defentsa bereberak, aldamiok erlaizean jarrita daudenean 3 m. baino gehiagoko altueran bide publikoarekin euskarririk gabe, eta horien azpian libreki ibil daitekeenean.
M2 edo zatiko egunean 0,26
- 7.- Zintzilik jarritako aldamiok, hesirik gabe,
m2 edo zatiko egunean 0,30
- 8.- Obrako ondarrak eta eraikuntza materialak:
M2 edo zatiko egunean 1,37
Udalaren edukinontzitan (m3).....13,44
- 9.- Egurrak eta landareak orokorrean; m2ko.....1,37

AULKIAK ETA MAHAIK ALOKATZEA

- Aulki bakoitzeko eta eguneko 0,49
Mahai bakoitzeko eta eguneko 1,13
Hesi bakoitzeko eta eguneko 1,13

B) POSTUAK, BARRAKAK, TXOZNAK, IKUSKIZUNAK, ETA ANTZEKOAK.

- | Kontzeptua | Euro |
|---|-------------|
| 1.- Taberna, kafetegi eta antzekoak,
Mahaiko eta lau eserlekuengatik hilean..... 6 | |
| 2.-Txurrotegi eta txokolategiak eta ore frijituko mahaiak.
M2 edo zatiko egunean 2,51 | |
| 3.- Pastelak, gozokiak, fruitu sikuak, patata frijituak, jostailuak, bisuteria e.a. saltzeko txoznak:

- 3 m2 baino txikiagoak diren saltokiak eguneko13,44
- 3 m2 baino handiagoak diren saltokiak eguneko .. 22,38 | |
| 4.- Tiro txoznak eta bestelako jokuak:
M2 edo zatiko egunean 2,51 | |
| 5.- Tonbolak, zozketak, salmenta arinak eta antzekoak:
M2 edo zatiko egunean 2,51 | |
| 6.- Ziboak, tresna hegalaria, kalesatxoak, zaldiko maldikoak, dumperrak eta orohar mugitzen diren aparailuak:
m2 edo zatiko egunean 2,51 | |
| 7.- Autotxoke pistak:
M2 edo zatiko egunean 0,30 | |
| 8.- Ikuskizun eta antzekoak:
M2 edo zatiko egunean..... 0,30 | |

9.- Zirkoak:

M2 edo zatiko egunean 0,26

C) TABERNA, TXOZNA , EDARITEGI ETA ANTZEKOAK HERRIKO JAIETAN:

Kontzeptua Euro

- Herri jabetzako lurzoru estalia erabiltzea,
herriko elkarteak:
M2 edo zatiko egunean 4,46

- Herri jabetzako lurzoru ez estalia erabiltzea,
herriko elkarteak:
M2 edo zatiko egunean 2,32

Kultur eta Kirol Elkarteei, ordaindu beharreko tasaren zenbatekoan %50eko hobaria ezarriko zaie.

D) LETREROAK, MAHAIAK ETA ALMAZENAMENDUAK.

Kontzeptua Euro

Argidun letreroak 59,63
Argigabeko letreroak 45,13
Mahai txikiak 12,12
Udal zoru nahiz hegalkin publikoa erabiltzea,erretiratutako gauzekin barne:
m2 edo zatiko egunean 0,30

E) UDAL ZORU PUBLIKOAN JARRITAKO KIOSKOAK.

Kontzeptua Euro

Egunkari, aldizkari, ipui, liburu eta antzekoak saltzeko: kiosko eta urteko..... 136,66

Izozki, errefreskagarri, gozoki, txitxeri, eta antzekoak: kiosko eta urteko. 236,90

F) ASTEROKO FERIKO POSTUAK, JOSE MAIORA ENPARANTZAN ETA UDAL ARKUPEETAN.

Kontzeptua Euro

Udaletxeko arkupeak okupatzea 1,2,3 arkuak eguneko.....5,97

Udaletxeko arkupeak okupatzea, 5, 6 arkuak, eguneko 4,53

Udaletxeko arkupeak okupatzea, 7, 8 arkuak, eguneko 3,68

Plaza okupatzea, m2 eta eguneko 0,73

Postua gordetzea, urte osoa 45,54

Udaletxeko arkupetik kanpo, plazan kamioiko eta eta eguneko. 5,99

-Ibilgailuarekin plaza okupatzea, eguneko 4,28

-Furgonetaz plaza okupatzea, eguneko 5,70

G) HORNIDURA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORUAREN, ZORUPEAREN EDO LURGAINAREN BAKARREKO ERABILERA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzuaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiteagatik (zerbitzuok interes orokorrekoak badira, edo eragina badute udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan) ordaindu beharreko prezioa, % 1,5 izango da, eta udal mugartean urtean egindako fakturaziotik datozen sarrera gordinei aplikatuko zaie

H) HERRI BARATZEN ERABILERA-KUOTA: 5 euro/hilabeteko.

I) UDAL EGURTEGIEN ERABILERA-KUOTA: 10 euro/hilabeteko.

ZERBITZUAK ESKAINI ETA AKTIBITATEAK EGITEAGATIKO TASAK:

Zaborrak eta igerilekuko atalak egokitzen dira.

- **POLIKIROLDEGI, PILOTALEKUAK ETA UDAL INSTALAZIOAK**

Kontzeptua Euro

- Partikularrek pilotalekua alokatzea, eguneko..... 765,00
- Partikularrek pilotalekua alokatzea, egun erdirako..... 357,00
- Herritarrek, pilotalekua erreserbatzea, orduko..... 9,00
- Herrikoak ez direnek, orduko 17,00
-Futbitorako frontoia erreserbatzea, herritarrek16,00
-Futbitorako frontoia erreserbatzea, kanpotarrek..... 32,00
- Dutxa (bazkideak ez direnak) 2,30

- Gimnasioko kuotak.

Hileko abonua 23,00

Hiru hileko abonua..... 66,00

Sei hileko abonua..... 130,00

Urteko abonua (gehi igerilekua).....258,00

Eguneko sarrera..... 6,00

Sauna, 10 saioko bonua 23,00

Urteko familia-bonua (ezkondu eta 18 urtetik gorako seme-alabak. Hauek bonuan sartzeko, gurasoekin bizi eta ikasten edo langabezian egon behar dute):

1º 258,00

2º.....206,00

3º 182,00

4º155,00

- Ikastaroak

Bazkideak (hilabetea) 25,00

Bazkideak ez direnak (hilabetea)..... 35,00

- Zenbait taldeei eskolako gimnasioan gaua pasatzeagatik (kide eta gaueko; begiraleak ez dute ordainduko).....5,00

- **HERRIKO FESTATAN, BAIMENAK EMATEAGATIKO TASA.**

Kontzeptua Euro

a) Herriko jaietan, edaritegi, taberna, edo antzeakoak leku pribatuan irekitzeko baimena emateagatik,

TASA, herriko elkarte edo taldeei 484,54

b) Herriko jaietan, lharduera iraunkorra duten taberna publikoei, haunditzeko baimena emateagatik TASA, leku edo zoru pribatua erabiliz 359,05

c) Herriko jaietan, garbiketa bereziengatik, iharduera iraunkorra duten tebernei TASA 179,82

Zerolako honetatik kanpo geratako lirateke a) eta b) ataletan sartzen diren sujeto pasiboak, era berean, Herri-lurra okupatzeagatik Prezio Publikoa ordaintzen duten taberna eta txoznak ere.

- UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK ESKAINI ETA EMATEAGATIKO TASA.

Kontzeptua	Euro
Herritarren ehorzketa udal nitxoetan	64,68
Kanpotarren ehorzketa udal nitxoetan	193,80

- ETXEZ ETXE ZABORRAK ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK JASOTZEAGATIKO TASA.

% 8,9KO IGOERA Egokitze proposamena

Kontzeptua	Euro
Jendea bizi deneko etxebizitza	(208,26)
Jendea bizi ez den etxebizitza.....	118,33)
Landalurrean kokatutako baserri edo etxebizitzak ...	(103,45)
Jendea bizi ez den baserria	(57,71)
Udalerrian kokaturiko jatetxeak eta otorduak ematen dituzten tabernak	(781,57)
Industriak jarduerarekin	
- 4 gurpileko errefusa edukinontziarekin.....	1.000,00
- 2 gurpileko errefusa edukinontziarekin.....	700,00
- Errefusa edukinontzirik gabe.....	525,00
Taberna/Dendak	364,54)
Langile bakar bateko enpresa edo autonomoak	215,61
Hutsik dauden industria pabilioiak	(207,05)

HIRIGINTZA BAIMENAK EMATEAGATIKO TASA.

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
- Proiekturik behar ez duen lana	33,95
- Proiektua behar duen lana	163,44
- Bereizte baimenak	25,15
- Partikular baten eskariz, hirigintza espediente bat tramitatzea:	
Xehetasun azterlana	1.346,70
Urbanizazio Proiektua	1.346,70
Arau Subsidiarioen Aldaketa	2.020,08
Hondamen Espedientea	1.077,35

Aurreko hiru ataletan agertzen ez diren gainerako hirigintza espedienteak... 718,21

- TAXI BAIMENAK EMATEAGATIKO TASA.

Kontzeptua Euro

1.- Baimenaren Udal emakida bakoitzeko	359,10
2.- Baimenaren erabilpena eta ustiapena urtean	17,91
3.- Baimendutako ibilgailuen aldaketa	26,91
4.- Baimenaren eskualdaketa	359,10

- **JARDUERA ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEAGATIKO TASA.**

Jarduera sailkatuen baimena behar duten jarduera sailkatuak:

Merkataritza	448,89
Industria eta ostalaritza	862,63
Zerbitzuak, garajeak eta gainerakoak.....	862,63

Jarduera sailkatuen baimena eman eta aurretiazko komunikazioa aurkeztu eta ondorengo egiaztatzea egitea, jarduera sailkauten baimena behar duten jardueren kasuan.

Merkataritza	148,59
Industria eta ostalaritza	287,74
Zerbitzuak, garajeak eta gainerakoak.....	287,74

Sektoreko legerian jasotako baldintzak bete izana egiaztatzeko jarduera egitea, aurretiazko baimen edo kontrolari lotuta ez dauden jarduerak direnean:

Merkataritza	224,41
Industria eta ostalaritza	448,89
Zerbitzuak, garajeak eta gainerakoak.....	224,41

- **FOTOKOPIAK EGITEAGATIK ETA FAX ZERBITZUARENGATIK TASA.**

Kontzeptua **Prezioa orrialdeko**

Fotokopiak txuri beltzean A4 tamainan.....	0,10 €.
Fotokopiak koloretan A4 tamainan.....	0,60 €.
Fotokopiak txuri beltzean A3 tamainan	0,20 €.
Fotokopiak koloretan A3 tamainan	1,20 €.
Fotokopiak kultur erakundeei Kultur Etxean	
Fotokopiak txuri beltzean A4 tamainan	0,06 €.
Fotokopiak txuri beltzean A3 tamainan	0,10 €.

Fax zerbitzua

0,60 € orrialdeko.

- **ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIA**

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea

13,66

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia berritza

13,66

Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan izena ematea

13,66

- **GIZARTE ZERBITZUAK**

Gizarte zerbitzuetatik adierazitakoaren arabera egokitzen dira

EGUNEKO ZENTROA

Eguneko Zentroa erabiltzen dutenek ordaindu behar duten kuota erabiltzearen hileroko dirusarreraren arabera finkatuko da. Ez dira kontutan hartuko familia-unitateko beste kideen dirusarrerak. Hileroko dirusarrera erabiltzaileen pentsio edo bestelako ordainsaria izango da.

Zerbitzuaren eguneko kouta, garraioa barne 16,83 €

JANGELA SOZIALA

Jangelaren eguneko menuaren kostua..... 4,71 €

BABESTURIKO ETXEBIZITZA

Hileroko kuota, zerbitzu guztiak barne 715,72 €

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Zerbitzuaren kostuaren gainean erabiltzaileak egingo duen ekarpena ondorengo ekarpenen taularen arabera zehaztuko da:

Orduko kostua: 15,00 €.

EAEAP sarrerak	LAGS sarrerak	Ekarpena
EAEAPren ≤%120	LAGSren ≤%75	%1,5
>%120-125	>%75-78	%4
>%125-130	>%78-81	%8
>%130-150	>%81-94	%15
>%150-175	>%94-110	%24
>%175-200	>%110-125	%35
>%200-225	>%125-140	%48
>%225-250	>%140-155	%61
>%250-275	>%155-170	%74
>%275-300	>%170-190	%87
EAEAPren >%300	LAGSren >%190	%100

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute..

Kide kopurua	Gehienezko ondarea
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€

- UDAL IGERILEKUAK

Egokitzen da (proposatzen den testuaren arabera)

Sarrera

Haurrak: 3tik 14 urtera bitartean 2,00 €
Helduak; 15 urtetik gorakoak 4,00 €

Denboraldiko abonua pertsonala

Haurrak: 3tik 14 urtera bitartean28 ,00 €
Helduak; 15 urtetik gorakoak 39,00 €

Familiako abonua

Haurrik gabeko bikotea 67,00€
Seme-alaba bat duten bikoteak *: 67,00 €
Bi seme-alaba edo gehiago dituzten bikoteak *:..... 78,00 €
Guraso bakarreko familia56,00€

(* 20 urtera bitarteko ikasleak diren seme-alabak)

Bigarrena.- 11/1989 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, behin-behingo akordio hau, Udaletxe honetako iragarki oholean, 30 laneguneko epean jendaurren jarriko da, epe horren barnean, edonork, espedientea aztertu eta ondo deritzon erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Era berean, jendaurren jartze hori, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, epea, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasiko delarik.

Jendaurren egoteko legezko epea igaro ondoren, inolako erreklamaziorik jaso ez bada, hartutako akordio hauek, behin-betikotzat joko dira, inolako akordio berririk hartu behar izan gabe.

Hirugarrena.- Lehenengo puntuan jasotzen ez diren eta indarrean dauden zerga edo tasen kuota edo tipoak mantentzea.

2.- 2020KO UDAL AURREKONTUAREN 3/2020 KREDITU ALDAKETA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Berezia egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	ONDASUN ARRUNTEN EROSKETA	10.600,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	34.009,88
6	INBERTSIO ERREALAK	10.545,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		55.154,88

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	55.154,88
GUZTIRA		55.154,88

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

3.- ZEGAMAKO EGUNEKO ZENTROA HANDITZEKO ETA ERABERRITZEKO LANEN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA PLEGUA ETA PROIEKTUA ONARTZEA.

Espedientea ikusirik.

Alkateak, Zegamako Eguneko Zentroa handitzeko eta eraberritzeko lanak egiteko beharra ikusirik, hau egiteko proiektua bideratu dela adierazten du, Ignacio Ibarretxe Pariente arkitektoak idatzitakoaren arabera.

Ondorio horietarako, lehiaketa ireki bidezko administrazio-klausula zehatzen eta baldintza teknikoaren (proiektua) agiriak aurkezten dira bere onarpenerako.

Lan horien aurrekontua honako hau da:

2017ko SPKLren 101.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, kontratuaren balioa 103.561,71 euro (BEZ kanpo) da. 87.026,65 € (Exekuzio materiala) eta 16.535,06 € (Gastu orokorrak eta etekin industrialak).

Proiektuaren lizitazio-aurrekontua guztira 103.561,71 euro da (BEZ kanpo), 125.309,67 euro (BEZ barne).

Egite epea.- 3 hilabete.

Lanak bideratzeko aurrekontua jasota dago 1.0000.622.03.230.00.2018, 1.0000.622.03.230.00.2019 y 1.0000.622.03.230.00.2020.aurrekontu sailetan. Zentzu honetan, esleipena bideratu baino lehen dagokion kreditu aldaketa bideratu beharko dela adierazten da.

Horiek ikusi eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako agiriak eta proiektua onartzea, eta horien arabera, kontratazio prozedura onartzea.

Bigarrena.- Lehiaketa hau arautuko duten plegu eta agiriak, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman, ohikoak diren hedabideentan, Udaletxeko iragarki oholean eta udaleko web gunean argitaratzea.

4.-ERAKUNDE EZ GUBERNAMENTALEN ARTEKO LANGUNTZAK BANATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, herrialde behartsuenekiko lankidetzaren programa eta dirulaguntzak banatzeko araudia onartu zuen.

Horren arabera, onartutako araudian jasotako baloraketaren erizpideak jarraituz, 2019ko ekitaldiari dagokionez, 4.750,00 euro banatuko ziren eskatutako baldintzak betetzen zituzten erakunde ez-gubernamentalaren artean.

Honela, egindako eskariak aztertu eta baloratu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuetako Lantaldeak egindako proposamena jarraituz (Alkateak azaltzen du, Elikagaien bankuak, bizitzen ari garen egoeraren ondorioz, eskaera berezia egin duela eta Saharar haurren etorrerarik ez dagoela), Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Udalak onartutako "Herrialde behartsuenekiko lankidetzaren programa eta dirulaguntzak banatzeko araudia" jarraituz, honako modu honetan banatzea 4.750,00 euroko dirulaguntza:

Izaki: Asociación Chernobil	1.500,00 €
Taupadak GGKE	125,00 €
Elikagaien bankua	3.000,00 €
Ortzadar	125,00 €

GUZTIRA 4.750,00 euro.

Era berean adierazten da, honako ohiko beste laguntzen banaketa egingo dela:

Parrokia: 800,00 euro (gehi 2.500,00 gehigarri).

Zegamako odol emaileak: 450,00 euro.

Aitzgorri Jubilatuen Egoitza: 1.650,00 euro.

Bigarrena.- Erabaki hau adierazitako erakundeei jakinaraztea laguntzen araudia ezarritakoaren arabera honako hau bete beharko dutela adieraziz:

“ *Dirulaguntza justifikapena:*

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

a) Programa burutzeko arduradun izendatuko pertsonari dirua transferitu zaiolako frogagiria.

b) Aurrera eramandako programa edo iharduerari buruzko Memoria xehea.

c) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren eraberako gastuen jatorrizko egiaztagiriak edo fotokopia konpulsatuak.

Justifikatzeko epea:

Aurreko artikuluan exijitutako agiriak gehienez honako epe hauetan aurkeztuko dira:

a) Aurreko artikuluan lehenengo ataleko egiaztagiria, dirulaguntza jaso eta 2 hilabeteko epean.

b) Hurrengo atalekoak (b eta c) eskatutako egiaztagiriak, iharduera subentzionatua bukatu eta 3 hilabeteko epean gehienez.

Ez betetzearen suposamendua:

Agindu honetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak, hura berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako dirulaguntza deusezteak, gutxitzea edo itzularaztea.

5.- HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA ETA NORMALIZAZIOAREN ARLOAN IVAP-EKIN HITZARMENA BERRITZEA.

Alkateak, Herri Arduradalitzaren Euskal Erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-erakundearen arteko hitzarmenaren berri eman du, hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloan izenpetzekoa.

Hitzarmen honen bidez finkatu nahi da zein nolako harreman juridikoa izango duten Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Zegamako udalak beren artean (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak)

Hitzarmenaren helburuak, xedeak eta betebeharrak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Zegamako Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

6.- GOIERRIKO ESKOLA KIROL EGOKITUAREN PROIEKTUAREKIKO ATXIKIMENDUA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako Zerbitzuetik idatzia aurkeztu zen, 2020-2021 ikasturterako **Goierriko Eskola Kirol Egokituko** (aurrerantzean, EKE) **zerbitzu amankomuna martxan** jartzeko asmoa azalduz.

Desgaitasuna duten Goierriko eskolameek kirol egokitua egin ahal izateko aukera bermatzea da helburua, betiere beren kideekin eskola kirol normalizatua egin ezin dezaketenean kasuetan. Horretarako, Ordizia eta Beasaingo EKEen egungo eskaintza mantentzea eta hedatzea da asmoa, eta Lazkaon EKE berri bat sortzea. Honela, eskualdeko izaera duen proiektua izatea lortuko da.

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioarekin duen hitzarmeneko diru ekarpena areagotuko du eskualdeko zerbitzu hau garatzeko, bidali genizuen proiektuan jasotakoak jarraituz.

Zentzu horretan, Goierriko udalerrri guztien partaidetza lortzeko asmoz, zein udalerriren **atxikimendua** izango den ezagutu nahi da. Eta zehazki, **2020-2021erako zein udalerririk** ematen duen **adostasuna diru ekarpena egiteko**, biztanleria portzentajearen arabera. Zegamako Udalak 549,85 euroko ekarpena egitea proposatzen da, biztanleria portzentajearen arabera.

Egitasmoaren helburuak, xedeak eta betebeharrak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, Zegamako Udalaren **BAIEZKOA** eta atxikimendua berresten du (Alkateak 2020ko urriaren 8an hartutako ebazpenaren arabera).

7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 06/0920 erabakia, irailaren 8koa, Arrano Talleres S.L. enpresari industria nabea egokitzeko baimena emanez.
- 07/0920 erabakia, irailaren 8koa, San Bartolome Kontsumo Kooperatibak Elizalde 5 etxeko behean burutzen duen jarduera legezkatuz.
- 08/0920 erabakia, irailaren 8koa, 2018ko ibilgailuen zergan borondatezko epean ordaindu gabeko zorraren %20 likidazioa eginez kobrantza bideratuz.
- 09/0920 erabakia, irailaren 14koa, hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergan kobrantzak bideratuz.

- 010/0920 erabakia, irailaren 15ekoa, 26 zenbakidun fakturen erlazioa (iraila) onartuz, guztira 90.858,67 eurokoa.
- 011/0920 erabakia, irailaren 16koa, GOT taldeari, irailaren 20an Otzaurten orientazio proba antolatzeke baimena emanaz.
- 012/0920 erabakia, irailaren 16koa, Tartaloetxe Pilota Elkarteari, Gipuzkoako klubetako arteko txapelketan parte hartzeke, udal frontoi-kiroldetgia erabiltzeke baimena emanaz.
- 013/0920 erabakia, irailaren 17koa, kontuhartzailetzatik bideratutako proposamenaren arabera, ibilgailuen zergan aurreko ekitaldietako zordunen baja gauzatuz.
- 014/0920 erabakia, irailaren 21ekoa, hiri izaerako lurten balioaren gehikuntzaren gaineko zergan kobrantzak bideratuz.
- 015/0920 erabakia, irailaren 21ekoa, Kultur Etxerako informatika materiala erosiz (248,05 euro).
- 016/0920 erabakia, irailaren 25ekoa, etxebizitzan lanak egiteke baimena emanaz.
- 017/0920 erabakia, irailaren 29koa, 27 zenbakidun fakturen erlazioa (iraila 2) onartuz, guztira 25.100,82 eurokoa.
- 018/0920 erabakia, irailaren 30ekoa, aurkeztutako erreklamazioaren arabera, hiri lurten balio gehikuntzaren gaineko zergan kitapena deuseztatuz.
- 019/0920 erabakia, irailaren 30ekoa, aurkeztutako erreklamazioaren arabera, hiri lurten balio gehikuntzaren gaineko zergan kitapena deuseztatuz.
- 020/0920 erabakia, irailaren 30ekoa, etxebizitzaren eremua egokitzeko lanak egiteke baimena emanaz.
- 021/0920 erabakia, irailaren 30ekoa, Leader programaren barnean, "Zegamako Gizarte Zerbitzuetako Eguneko Zentroaren handitzea eta erreforma" bideratzeko diru-laguntza eskatzea.
- 01/01020 erabakia, urriaren 2koa, egurra ateratzeko lanak bideratzeko fidantza ezarriz.
- 02/01020 erabakia, urriaren 7koa, etxebizitzan lanak egiteke baimena emanaz.
- 03/01020 erabakia, urriaren 7koa, etxebizitzan lanak egiteke baimena emanaz.
- 04/01020 erabakia, urriaren 7koa, etxebizitzan lanak egiteke baimena emanaz.
- 05/01020 erabakia, urriaren 7koa, etxebizitzan lanak egiteke baimena emanaz.
- 06/01020 erabakia, urriaren 8koa, Goierriko Eskola Kirol Egokituko zerbitzu amankomunean parte hartzeke borondatea adieraziz.
- 07/01020 erabakia, urriaren 8koa, Covid-19ak eragindako egoeraren ondorioz neurriak bideratuz.

- 08/01020 erabakia, urriaren 14koa, Osasun Sailatik jakinarazitakoa jarraituz, Txanton tabernaren itxiera agindua bideratuz eta irekiera gauzatzeko neurriak jakinaraziz.
- 09/01020 erabakia, urriaren 14koa, gimnasioko kuoten ondorioz bideratutako likidazioa onartuz eta Goierri Kirol Teknikoak enpresari jakinaraziz.
- 010/01020 erabakia, urriaren 15ekoa, 28. zenbakidun fakturen erlazioa (urria) onartuz, guztira 54.353.10 eurokoa.
- 011/01020 erabakia, urriaren 15ekoa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanaz.

8.- GALDE-ERANTZUNAK.

- Alkateak, Covid19ak eragindako egoeraren ondorioz, hartutako neurrien berri ematen du (urriaren 8ko ebazpenaren arabera, herritarrei jakinarazitakoak). Ostiralean bideratu zen bileraren harira, horiek azaldu (arau berririk ez eta herritarren kontzientziarioa) eta aldiro neurri berriak bideratzen ari direla ikusirik (Lehendakariak ondoren emandako neurriak aipatzen dira), horiek nola bideratu aztertu beharko dela adierazten da. Bilkurakideak neurri berri horiei buruz eztabaidatzen dute. Zegaman dauden kutsatze datuen arabera udaletik hartutako neurriak egokitzeari buruz hitz egitean da. Honela, pilota eskolari buruz, Alkateak adierazten du eman daitekeela, ezin dena orain, libre irekita uztea dela. Parkeak ixteari buruz eztabaidatzen bilkurakideak. Zentzu horretan, Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), berehala ireki egingo litzukeela azaltzen du. Alkateak esaten du, datuen arabera, ostiralean erabakiko dela zer egin eraikin publikoekin eta parkeekin, bere iritziz, hobe dela denak aldi berean irekitzea, itxi ziren moduan.

Era berean, Alkateak, Txanton tabernaren itxiera aginduari buruz, Eusko Jaurlaritzatik emandakoa, hartutako neurriak azaltzen ditu.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), Covid19ak eragindako egoeraren aurrean bere taldearen iritziz zer egin den ongi eta zer gaizki azaldu nahi duela adierazten du. Zentzu horretan, ikusten dute egoera larria eman dela herrian, eta alarma handia egon dela, bere ustez, kutsatze komunitarioa eman delarik. Bereaien proposamen bat Osakidetza frogatzen masiboak eskatzea izango litzateke, baina Osakidetza hori bideratu ez duenez, erakunde honi herritarrei azalpen bat ematea eskertuko zela dio. Era berean, Osakidetza aldetik, fokoa izan daitezkeen eremuetan (tabernak aipatzen dira), berehalako ekintzarik ez dela eman dio. Osakidetza informazio falta hori, udalak osatzeko garrantzia ere azaltzen dute, herritarren lasaitzeko, eta informazio falta hori kalean somatu dutela azaltzen du. Jakinarazpen bakarra eman dela azaltzen du. Etorkezinerako, denon ardurapean, elkarteak, tabernak, bezeroak... jarrera ezegokiak ikusiz gero, horiek hasieratik mozten saiatu behar direla irizten dutela. Bilkurakideak, azken aipamen honi buruz hitz egiten dute, eta adostasuna adierazten da.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), galdetzen du ea Foru Aldunditik banda zabala bideratzeko laguntzarik egin den. Alkateak dio Foru Aldunditik kudeatzen ari dela laguntza bat, europako fondoetara bitartez, lehen fase batean, baserri banda zabala bideratu zen bezala, bigarren fase bat martxan

jartzeko (plazatik gorago). Edozein kasutak, laguntzak zuzenean Foru Aldundiak bideratuko lituzkeela dio Alkateak. Goimenekin duela gutxi hitz egin zuela eta aurki egitea espero ez zutela esaten du, nolahi ere kontsultatuko duela berriz.

- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu), Ugarte Zelai auzoan haurrentzat zerbait jartzea eskatu zela. Julian Iraola Lapizondo (Zegama Lantzen) zinegotziak eta Alkateak adierazten dute martxan dagoela. Aurrez, beste txukunketa lan batzuk egin behar direla azaltzen da. Alkateak, eremuan iturri bat jartzeko asmoa dagoela ere azaltzen du.
- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu), bere baserrira doan bidea ez dela garbitu azaltzen du. Alkateak esaten du, zerrendan sartua dagoen begiratu beharko dela, pasa ez badira, ziurrenik sartu gabe dagoelako izango dela. Gaiaz hitz egiten dute, eta bere kasuan, iraileko zerrendan sartzea proposatzen da, horrela komeni delako.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak eta berrogei minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasorarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2020kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2020.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO